

# **Ba ote dago irtenbide ekonomikorik Euskal Herrian?**

**joseba felix tobar-arbulu**

[www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/](http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/)

[josebafelix@outlook.es](mailto:josebafelix@outlook.es)

# Krisia nahita izan da induzituia

Nahita sortu dute krisia

Nondik dator krisia? Zerk edo zeinek  
sortu dute?

**FIRE**

FIRE akronimoa da: *Finance*, *Insurance* eta *Real Estate*, alegia, finantza, aseguruak eta higiezin erreala

# Politika Fiskala: zer esan daiteke horren inguruan?

*Ez dago finantza krisi hain sakonik  
zerga mozketak nahiko batek edo  
gastu gehitze aski batek  
ezin duenik bera konpondu*

Warren Mosler-en legea

# ‘MERKATUAK’

Inbertsio-bankuak

aseguru-konpainiak

pentsio-fondoak

espekulazio-fondoak

(aktibo, obligazio eta deribatuak  
saltzen dituztenak)

Aspalditik ezagutu genuen kapitalismo  
mota, hots, kapitalismo industrialak, erabat  
aldatu da

Orain eta nonahi, ekonomia bitan banatzen  
da: ekonomia errealak eta finantza  
ekonomia

**Ekonomia:  
bitan banandua**

**Ekonomia errealak 45 bilioi euro, urteko**

**Finantza esferako merkatuek 3.450 bilioi euro**

Aurrezkiak  
eta  
zorra



# KREDITUAK

Kredituak, hein handi batean, finantza arlora joan dira, ez produkzio berriak gauzatzeko, **espekulatzeko** baizik

Jadanik existitzen ziren aktiboen prezioak altxatu dira espekulazioen bidez, askotan zaborrezko kredituak izanik, inflazioa kausatuz

Hortaz, kredituak bereizi behar dira: (a) ekonomia errealera doazenak eta (b) espekulaziora doazenak, FIREra

Soilik lehenak hobetsi behar dira. Horra hor lehen ondorio garbia

Beste aldetik, kreditu horiek utzitako zorrak langabezia induzitu du.

Denbora berean, **inflazioa eta langabezia** ezagutu ditugu

# ZORRAK

Wall Street-eko banku nagusiek, aseguru konpainia nagusiek, pentsio fondoek, hipoteka fondoek eta antzekoek **nahita** sortu dute krisia, gero estatutik dirulaguntza ikaragarriak jasotzeko

Alderantzizko sozialismo baten aurrean gaude: aberatsak gero eta aberatsago eta langileak, jende xehea, eta enpresa txiki eta ertainak gero eta pobreago

Baina zorrak ordaindu behar dira

Horretarako langileriaren soldatak **murriztuko** dira, **austeritatea** barreiatuko da, historian zehar lorturiko ongizatezko gizartearekin bukatu nahi dute: arlo publikoa txikituz (hezkuntza, osasungintza, oro har, zerbitzu publiko guztietan)



# **Krisia induzitua, nahita sortua..., nola jakin daiteke hori?**

**Randall Wray** ekonomialariak eta zenbait kidek aspaldian salatu dute egoera hori, baita nola zaborrezko kreditu eta aktiboekin jolasten ari ziren eta zer dela eta krisia sortu zuten ere

Are gehiago, FBI-koek argi eta garbi zekiten, aspalditik gainera!, Wall Street-eko banku nagusiak zertan ari ziren.

Link honetan

<http://neweconomicperspectives.org/?s=FBI>

(Orri batzuk)

# ONDORIOAK

Nahita sorturiko eta erabat probokatutako krisiak badauka helburu zuzen, zehatz eta garbi bat

Langileriaren aurka eta ongizatezko gizartearen kontrako finantza gerla horretan langileria eta enpresa txiki eta ertainak menperatzea (biak daude finantza ekonomiaren menpe)

Horretarako datoz **austeritatea eta murrizketak**

# Moneta subiranoa

Moneta edo dirua ez da gauza material bat, **aktibo-pasibo bat** baizik, hots *IOU (I owe you) bat, alegia 'zor dizut' bat*

Moneta bati estatuak ematen dio balioa, zergapetzearen bidez. Estatuak aukeratzen du zein monetatan ordaindu behar diren zergak

Estatu subirano batek bere moneta propioa jaukitzen du. Berak **nahi eta behar duen beste** moneta jaukitzen du

Estatu horrek bera moneta **debaluatu** ahal du, kasu, esportazioak areagotzeko

Estatu horrek **politika fiskal apropos** bat martxan jar dezake

Moneta horrek, beste monetekin batera, **flotatu** egiten du

Edozein herrialde **subiranok ez du inolako solbentzia arriskurik**

# EBZ

Diru jaulkitzaileak  
eta  
diru erabiltzaileak

For **currency-issuing governments** such as Britain, Japan and the US, there was no risk of governments running out of money

The **euro-zone states**, which had opted to **use a currency they didn't issue**

# Eurolandia

Antolamendu monetarioa dela eta, pentsatu  
eurokideko estatuak AEBetako estatuen gisa  
EBZ FED-ren gisa  
eta euro parlamentua, AEBetako  
Kongresuaren gisa

Banku zentrala nagusi, ez altxor publikoa

Defizit publikoa, BPGren %3

Politika fiskala krisitik ateratzeko:

Defizit publikoa handitzea

# Ekonomia hitz gutxitan

Eskari agregatuaren eskasia da giltza

Euroari buruzko **aurreikuspena**: azken 20 urteko aurreikuspenik handiena DTMkoek egin dute

Ezjakintasunaren krisia: **austeritatea** da ezjakintasunaren krisi honetan guztiok adostu duten gauza bakarra

**Zor subiranoa eta solbentzia** loturik daude

# Zer egin Eurogunean?

## EBZ

EBZ euroaren jaulkitzailea da, beraz ez du inongo errenta murrizketarik

EBZk euroak gastatu eta banatu egin ditzake, nahitara, inolako muga nazionalik gabe

EBZk ez dauka ezelako kaudimen- edo solbentzia-arazorik

Oharra: EBZk teklatuaren bidez sortzen ditu euroak, nahi eta behar diren beste

# Mosler-en proposamena

Urtero EBZk BPG osoaren %8ko euro ordainketak luzatzea eurokide gobernuei,  
*per capitako oinarrian*

EBZk ELR programa, edo lan bermeko programa (*employer of last resort*, alegia, azken baliabideko enplegatzailer gisa) finantzatzea

Oharra: Teklatu baten bidez egin daitezke horrelako ordainketak eta finantzaketak.

Kostua **zero** da



# Proposamenaren oharrak (1)

Estatuek gastatzen dute EBZri esanez euro horiek banku kontu egokietan gehitzeko

Kreditu bat da besterik ez

Arazoa da EBZk ezetza ematen badu

EBZk ezetza esateko mehatxua erabiltzen du austeritatea derrigortzeko

# Proposamenaren oharrak (2)

Erregelak aldatu daitezke

Europar Batasuneko (EB) defizit publikoa handitu daiteke

Defizita BPGren %3tik % 8ra

Europako Banku Zentralak (EBZ) bermatu dezake gehikuntza hori esplizituki

EBk ez badu onartzen, moneta propioa (**balparda**) martxan jartzea

Ikus **Ongi etorri balparda:**

# Europako ezkeraren porrota

## Eskozia:

Britainia Handiko libra eta altxor publikoa, Eskoziarako

## Italia:

Zirkulu karratuaren bila: eurogunean segitzea eta aldi berean austeritatearekin bukatu nahi izatea

## Grezia:

Grexit ala kapitulazioa?

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2015/04/12/grexit-ala-ka>

Eurolandiatik kanpo  
ez dago irtenbiderik?

Islandia?

Liechtenstein

Norvegia?

Suitza?



# Krisi ekonomikoaz haratago: moneta propioa ala euroa?

Greziak (eta Eskoziak nahiz Italiak) bere moneta propioa erabil lezake, printzipioz

Baldintza bakarra:

Grezia errepublika independente gisa eratzea: gobernu bat, eta gobernu horrek moneta propioa, drakma berria jaulkitzea, Banku Zentralaren bidez eta Altxor Publikoaren laguntzarekin

Gehi DTM ongi aplikatzea

# Zer esan nahi du herrialde subiranoak?

- (i) Banku zentralak zuzenki Gobernuaren zorra eros dezake beti, eta horrela gastu publikoa erraztu, bono merkatura jo gabe
- (ii) Atzerritar truke merkatuetan libreki flotatzen du monetak
- (iii) Gobernuak ez du behar maileguz hartzen atzerritar monetetan
- (iv) Ondorioz, edozein herrialde subiranok ez du inolako solbentzia arriskurik


# Zein da Alemaniaren rola?

Gaur egun bankuak dira nagusi, nazioarteko banku handiak, eta Ramonet-ek aipatutakoak: “...*banques d’investissement, de compagnies d’assurances, de fonds de pension et de fonds spéculatifs...*”

Haiek planifikatu dute ekonomia, batez ere finantza ekonomia (egun garrantzitsuena dena).


Wall Street da, mundu mailan, ‘komite zentrala’, eta beste maila apalago batean, EBn, Europar Banku Zentrala, eta berorren atzean dagoen Alemaniako Bundesbank

### Current Account 1996





## Current Account 2011



# Dirurik badago

Inbertsio publikoa finantzatzeko, enpresa txiki eta ertainerako diru laguntzak emateko, irakaskuntzan eta heziketan dirua sartzeko, gauza bera osasungintzan, eta, nola ez!, 62 urtetik aurrera, erretiro duinerako behar den beste euro erabiltzeko

Baita *lan berme*ko programetan aritzeko ere

Dirurik badago

Non? EBZn 'dago'. Baina diru hori ez da objektu bat

Dirua teklatuaren bidez sortu ahal du EBZk. Kostua **zero** da

# Lira versus euroa

EBZ-k nazioarteko banku handiei euroak eskaintzen dizkie interes-tasa oso baxuan

Gero nazioarteko bankuek estatuari euroak maileguz ematen dizkiote interes altuagoan

(Gure kasuan, *lira* barik irakur *balparda*)

## STATO CON MONETA SOVRANA (LIRA)

L'acqua al campo, i soldi all'economia, possono essere dati solo dallo Stato a moneta sovrana, che **EMETTE NUOVA MONETA, SPENDENDOLA.**




$\text{Risparmio} = \text{Spesa Pubblica} - \text{Tasse}$   
 $\text{Deficit} = \text{Spesa Pubblica} - \text{Tasse}$   
 $\text{DEFICIT} = \text{RISPARMIO PRIVATO}$

Il **DEFICIT** se denominato in una moneta che lo Stato emette è solo una scrittura contabile. è lo Stato che emette la sua moneta e non può dunque rimanerne senza soldi.

## STATO CON MONETA NON SOVRANA (EURO)

Lo Stato non può più dare al campo l'acqua che necessita: deve chiedere in prestito **TUTTI** i soldi che spende e **DEVE RESTITUIRLI CON GLI INTERESSI!**  
Se non li ottiene, il campo rimane senz'acqua.



Lo Stato deve pensare a fare cassa: non emettendo la moneta può rimanere senza soldi ed è costretto ad adottare misure di **AUSTERITÀ.**

Etorkizunerako:

**Sei (6) urrats XXI mendean independentista izateko**

- (i) **Dirua eta BOTEREA**: Dirua eta boterea
- (ii) **Globalizazioa** (egokia, onargarria) eta **NEOLIBERALISMOA** (desegokia, baztergarria):  
Globalizazioa ala neoliberalismoa?
- (iii) **Nazio-ESTATUA**ren garrantzia: Nazio-estatu ezina omen da
- (iv) **Moneta PROPIOA**: DTM lau eskematan (euroa eta lira) eta Ongi etorri balparda!
- (v) **DTM**-ren garrantzia: Diru Teoria Modernoa hasiberrientzat
- (vi) **LAN BERMEA**: Langabeziaren aurka: lan bermea

# Gehigarriak

## **Euskal Herriko konfederaziorantz**

<http://www.unibertsitatea.net/otarra/gizarte-zientziak/ekonomia/euskal-he>

## **Ongi etorri balparda!**

<https://www.unibertsitatea.net/apunteak/gizarte-zientziak/ekonomia/ongi-e>

## **DTM hasiberrientzat**

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/2014/01/21/diru-teoria-r>

## **Lan bermea**

[http://  
www.unibertsitatea.net/otarra/gizarte-zientziak/ekonomia/langabeziaren-a](http://www.unibertsitatea.net/otarra/gizarte-zientziak/ekonomia/langabeziaren-a)

# MILA ESKER!

*To know or not to know, that's the question!*

*Jakin ala ez jakin, horra hor arazoa!*

(donejurgi)